



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko abuztuaren 27a

85. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Atarrabiako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (2. or.).
- Corellako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (13. or.).
- Lizarrako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (23. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Atarrabiako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa,  
Comptos Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 15ean eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Atarrabiako Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2009ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Atarrabiako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa,  
Comptos Ganberak egina**

**AURKIBIDEA**

Txosten exekutiboa edo laburpena (2. or.).

I. Sarrera (3. or.).

II. Helburua (4. or.).

III. Norainokoa (4. or.).

IV. Iritzia (4. or.).

IV.1. Udalaren 2007ko ekitaldiko kontu orokorra. (4. or.).

IV.2. Legezketasuna (4. or.).

IV.3. 2007ko abenduaren 31ko egoera ekonomiko eta finantzarioa (4. or.).

IV.4. Comptos Ganberak aurreko txostenetan emandako gomendioen betetzea (4. or.).

V. Kontu orokorraren laburpena (5. or.).

V.1. Aurrekontuaren betetze-maila (5. or.).

V.2. Aurrekontu-emaizta (6. or.).

V.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orria (7. or.).

V.4. Egoeraren balantzea (8. or.).

V.5. Ratioak (9. or.).

VI. Iruzkina, ondorioak eta gomendioak (10. or.).

VI.1. Alderdi orokorrak, aurrekontuen egotza-erriak eta aldaketak eta exekuzioa (10. or.).

VI.2. Langileak (10. or.).

VI.3. Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan (10. or.).

VI.4. Inbertsioak (11. or.).

VI.5. Diru-sarrerak (11. or.).

VI.6. Inbentarioa, ibilgetua (12. or.).

VI.7. Hirigintza (12. or.).

**TXOSTEN EXEKUTIBOA EDO LABURPENA**

Nafarroako Comptos Ganberak, bere jarduketa-programari jarraituz, Atarrabiako Udalaren 2007ko ekitaldiko fiskalizazioa egin du. Udalerririk 10.000 biztanle baino gehixeago dauka.

Udalaren 2007ko kontu orokorrak alderdi esanguratsu guztietan bere gastuetako eta diru-sarretako aurrekontuen likidazioaren eta egoera ekonomiko eta ondarezkoaren irudi leiala adierazten duela, 1995ekoa den inbentarioa alde batera utzita.

Legezketasun-analisiari dagokionez, txostenen adierazten da udalaren jardura ekonomiko eta finantzarioa araudi indarduna errespetatuz gauzatu dela, oro har.

2007an, Udalak 8,6 milioi euro gastatu zituen eta 8,4 milioi euroko diru-sarrerak izan zituen.

Gastuetan, langile-gastuak nabarmendu behar dira, 4 milioi euro egiten baitute. Gastatutako guztiaren ehuneko 46 egiten dute. Ondotik, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan gastuak datoz, 2,2 milioi euro, eta inbertsio-gastuak, 1,5 milioi euro.

Udalak ekitaldia itxi zuen 629.222 euroko aurrekontu-emaizta doitu negatiboarekin; gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina 624.960 eurokoa izan zen; zorra, berriz, 4,1 milioi eurokoa.

Horrenbestez, ehuneko 7,15eko zorpetze-maila dago, eta zorpetzearen muga, berriz, ehuneko 9,35ekoa da.

Gomendioei dagokienez, aurreko ekitaldian aipatutakoak bete gabe daude. Horien artean, honakoak daude: inbentarioa gaurkotzea eta garrantzia duen informazio guztia bilduko duen oroitidazkia egitea.

## I. SARRERA

Bere jarduera-programari jarraikiz, Comptos Ganberak udalaren 2007ko kontu orokorraren fiskalizazioa egin du.

Atarrabiako Udalak 1,1 km<sup>2</sup>-ko azalera du. 10.226 biztanle ditu eta hauexek dira bertako zifra adierazgarrienak 2007ko abenduaren 31n:

| Entitatea              | Aitorturiko betebeharrak | Aitorturiko eskubideak | Langileak<br>2007-12-31n |
|------------------------|--------------------------|------------------------|--------------------------|
| Aitorturiko eskubideak | 8.639.408,33             | 8.407.198,29           | 107                      |

Udala sarturik dago Iruñerriko Mankomunitatean, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri hondakin solidoen kudeaketa- eta tratamendu-zerbitzuak eta eskualdeko hiri-garraiokoak.

2007ko ekitaldian Atarrabiako Udalarik aplikatzea izandako araubide juridikoa honako hau izan da, funtsean:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko 11/2004 Foru Legea.
- Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeko 7/1985 Legea.
- 25/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutua onesten duena.
- Kontratu Publikoari buruzko 6/2006 Foru Legea.
- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.
- Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea.

Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira, zeinak Nafarroako Toki Administrazioari aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.

Atarrabiako Udalaren exekuzio-oinarriak.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean txostenaren helburuak agertzen dira. Hirugarrenean, eginiko azterlanaren noraino-

koa, eta laugarrenean, kontu orokorrari, legezkontasunari, finantza egoerari eta aurreko gomendioen jarraipenari buruz dugu iritzia agertzen dugu.

Bosgarren atalean sartu ditugu berraztertu ditugun finantzen egoera-orriak eta, seigarren eta azkenekoan, berriz, erakusten ditugu erakundearen barne-antolaketa eta kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorio eta gomendioak, arloen arabera.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Atarrabiako Udaleko langileei, beraien lankidetzarengatik.

## II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Atarrabiako Udalaren 2007ko ekitaldiko kontu orokorraren fiskalizazioa egin dugu.

Txostenak helburu du honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

a) Atarrabiako Udalaren 2007ko kontu orokorrak fidelki islatzen ote duen alderdirik behinenetan entitatearen ekonomia- eta finantza-egoera eta aurrekontuaren likidazioa eta lorturiko emaitzak, eta orokorki onartuak diren kontabilitate-printzipio eta -arauei jarraituz prestatu ote den eta horiek uniformetasunez aplikatu diren.

b) Atarrabiako Udalak 2007an aurrera eramandako jarduerari aplikatzea zaion legediaren betetze-maila.

c) Atarrabiako Udalaren egoera finantzarioa 2007ko abenduaren 31n.

f) Egin zuen azken fiskalizazio-txostenean, zeina 2006ko ekitaldiari buruzkoa baita, Comptos

Ganbera honek eman zituen gomendioak noraino bete diren.

Txostenarekin batera, beharrezkoak diren gomendioak eman ditugu, entitatearen kudeaketa ekonomiko-finantzarioa hobetze aldera.

### III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak Atarrabiako Udalaren 2007ko ekitaldiko kontu orokorraren fiskalizazioa egin du.

Hona hemen udalak aurkezturiko finantzen egoera-orri nagusiak:

- Aurrekontuaren betetze-mailari buruzko egoera-orria, ekitaldiko aurrekontu-emaiza eta entitatearen diruzaintza-gerakina.

- Entitatearen egoera-balantzea.
- Entitatearen galera eta irabazien kontua.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta araei jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hauta-proba edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz. Prozedura horien artean erabili da laginen teknika, edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa.

### IV. IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Atarrabiako Udalaren 2007ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Udalaren erantzukizuna da kontu horren prestaketa eta edukia.

Egindako berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzi hau adierazi behar dugu:

#### IV.1. UDALAREN 2007ko EKITALDIKO KONTU OROKORRA.

Ondasunen inbentarioa 1995ekoa da, eta ez da eguneratzen; horregatik, ezinezkoa izan da egoera-balantzeko ibilgetuaren saldoa egiaztatzea; saldo hori, 2007ko abenduaren 31n, 22.552.060 eurokoa zen.

Aurreko lerrokadan aipaturikoaren ondorioak alde batera utzita, udalaren 2007ko ekitaldiko kontu orokorrak fidelki islatzen du alderdirik behin-etan gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen liki-

dazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta egini-ko eragiketen emaitzak, aurreko ekitaldian aplikaturikoekin bat datozen eta orokorki onartuak diren kontabilitate-printzipio eta -arauei jarraituz.

#### IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke Udalaren jarduera ekonomiko eta finantzarioa, oro har, legezkotasun-printzipioa errespetatuz egiten dela.

#### IV.3. 2007ko ABENDUAREN 31ko EGOERA EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA

Hasierako aurrekontua 9.264.153 eurokoa da, eta behin betikoa, 9.485.302 eurokoa. Gastuen betetze-maila ehuneko 91koa da, eta diru-sarrerena, ehuneko 89koa.

2007ko ekitaldian transferentziek udalaren diru-sarreraren ehuneko 45 egin dute eta zergek ehuneko 41. Zuzeneko zergen betetze-maila ehuneko 101ekoa izan da, eta zeharkakoena, ehuneko 52koa, aurrekontuko aurreikuspena justifikatu zuten etxebizitzak ez baitira eraiki. Bestalde, transferentzia arrunten ehuneko 99 bete da.

Gastuen kapituluek, funtsean, gastu arruntarenak, ia guztiz exekutatu dira. Inbertsioetan, berriz, ehuneko 68 exekutatu da.

Langile-gastuek gastu guztien ehuneko 46 egin dute, eta ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuek, berriz, ehuneko 25.

Ekitaldia ixtean aurrekontuko emaitza doitu negatiboa izan zen, 629.222 eurokoa hain zuzen (253.300 euroko emaitza positiboa izan zen aurreko ekitaldian).

Epe luzeko zorpetzea, 2007ko abenduaren 31n, 4.105.566 eurokoa zen.

Ekitaldia ixtean, udalaren finantza-egoeraren ezaugarriak hauexek ziren: ehuneko 7,15eko zorpetze-maila, ehuneko 9,34ko zorpetze-muga eta gastu orokorretarako 624.960 euroko diruzaintzako gerakin positiboa.

#### IV.4. COMPTOS GANBERAK AURREKO TXOSTENETAN EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZEA

- Oraindik ere bete gabe daude 2006. urteari dagokion txostenean egindako gomendio nagusiak; txosten honetako VI. atalean daude jasota.

**V. KONTU OROKORRAREN LABURPENA****V.1. AURREKONTUAREN BETETZE-MAILA**

## Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

| Gastuen kapituluak                         | Hasierako kredituak | Aldaketak      | Behin betiko aurreikuspenak | Aitorturiko betebehargarbiak | Betetakoa, %  | Ordainketak      | Ordaindutakoa, % | Ordaintzeko dagoena |
|--|---------------------|----------------|-----------------------------|------------------------------|---------------|------------------|------------------|---------------------|
| Langile-gastuak                            | 4.188.544           | 0              | 4.188.544                   | 3.996.864                    | %95,42        | 3.893.720        | %97,42           | 103.145             |
| Gastuak ondasun aruntetan eta zerbitzuetan | 2.050.724           | 81.828         | 2.132.551                   | 2.201.101                    | %103,21       | 1.974.713        | %89,71           | 226.388             |
| Finantza-gastuak                           | 188.916             | -10.725        | 178.191                     | 169.420                      | %95,08        | 169.420          | %100,00          | 0                   |
| Transferentzia aruntak                     | 508.113             | -23.090        | 485.023                     | 465.283                      | %95,93        | 378.555          | %81,36           | 86.728              |
| Inbertsio errealak                         | 1.977.558           | 162.412        | 2.139.970                   | 1.450.891                    | %67,80        | 772.704          | %53,26           | 678.187             |
| Pasibo finantzarioak                       | 350.297             | 10.725         | 361.023                     | 355.849                      | %98,57        | 355.849          | %100,00          | 0                   |
| <b>Gastuak, guztira</b>                    | <b>9.264.152</b>    | <b>221.149</b> | <b>9.485.302</b>            | <b>8.639.408</b>             | <b>%91,08</b> | <b>7.544.960</b> | <b>%87,33</b>    | <b>1.094.448</b>    |

## Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

| Diru-sarreraren kapituluak                            | Hasierako kredituak | Aldaketak      | Behin betiko aurreikuspenak | Aitorturiko eskubide garbiak | Betetakoa, %  | Kobrantzak       | Kobratutakoa, % | Kobratzeko dagoena |
|---|---------------------|----------------|-----------------------------|------------------------------|---------------|------------------|-----------------|--------------------|
| Zuzeneko zergak                                       | 2.315.060           | 0              | 2.315.060                   | 2.347.357                    | %101,40       | 2.084.659        | %88,81          | 262.698            |
| Zeharkako zergak                                      | 319.200             | 0              | 319.200                     | 165.163                      | %51,74        | 157.318          | %95,25          | 7.845              |
| Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk | 694.214             | 58.737         | 752.951                     | 902.856                      | %119,91       | 854.565          | %94,65          | 48.291             |
| Transferentzia aruntak                                | 3.850.058           | 0              | 3.850.058                   | 3.819.374                    | %99,20        | 3.482.013        | %91,17          | 337.361            |
| Ondare diru-samerak eta hemi-lurren aprob.            | 118.000             | 0              | 118.000                     | 114.877                      | %97,35        | 34.877           | %30,36          | 80.000             |
| INBERTSIO ERREALAK<br>BESTERENTZEA                    | 250.000             | 0              | 250.000                     | 0                            | %0,00         | 0                | %0,00           | 0                  |
| Kapital-transferentziak                               | 528.078             | -8.264         | 519.814                     | 457.571                      | %88,03        | 37.253           | %8,14           | 420.318            |
| Aktibo finantzarioak                                  | 0                   | 170.676        | 170.676                     | 0                            | %0,00         | 0                | %0,00           | 0                  |
| Pasibo finantzarioak                                  | 1.189.543           | 0              | 1.189.543                   | 600.000                      | %50,44        | 600.000          | %100,00         | 0                  |
| <b>Diru-sarrerak, guztira</b>                         | <b>9.264.152</b>    | <b>221.149</b> | <b>9.485.302</b>            | <b>8.407.198</b>             | <b>%88,63</b> | <b>7.250.686</b> | <b>%86,24</b>   | <b>1.156.512</b>   |

## V.2. AURREKONTU-EMAITZA

| KONTZEPTUA  | 2007               | 2006              |
|---|--------------------|-------------------|
| Aitorturiko eskubideak  | 8.407.198,29       | 8.327.145,54      |
| (Aitorturiko betebeharrak)  | 8.639.408,33       | 8.148.140,56      |
| <b>AURREKONTU EMAITZA</b>   | <b>-232.210,04</b> | <b>179.004,98</b> |
| (Finantzaketaren desbideraketa positiboak)  | (549.186,39)       | (12.960,48)       |
| Finantzaketaren desbideraketa metatu negatiboa  | 38.881,34          | 87.255,68         |
| Diruzaintzako gerakinarekin finantzaturiko kredituak  | 113.292,67         | 0,00              |
| Aurreko ekitaldiko gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinarekin finantzaturiko betebeharrak | 0,00               | 0,00              |
| <b>AURREKONTUKO EMAITZA BEHIN BETIKOA</b>   | <b>-629.222,42</b> | <b>253.300,18</b> |

## V.3. DIRUZAINZTA-GERAKINAREN EGOERA-ORRIA

| KONTZEPTUA  | 2007                | 2006                |
|---|---------------------|---------------------|
| Diru-sameren aurrekontua: Aurtengo ekitaldia              | 1.162.119,25        | 959.245,26          |
| Diru-sameren aurrekontua: Itxitako ekitaldiak             | 833.492,16          | 669.609,48          |
| Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak                         | 275.929,13          | 117.275,24          |
| Ordainketen itzulketak                                    | 563,75              | 3.381,30            |
| (Dirubilketa zaileko eskubideak)                          | (681.427,18)        | (585.738,85)        |
| (Aplikatzeko dauden diru-sarrerak)                        | (78.648,89)         | (71.425,08)         |
| <b>KOBRAZTEKO DAUDEN ESKUBIDEAK</b>                       | <b>1.512.028,22</b> | <b>1.092.347,35</b> |
| Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia                   | 1.094.448,04        | 565.135,99          |
| Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak                  | 112.583,63          | 109.299,69          |
| Diru-sameren itzulketak                                   | 5.607,16            | 0,00                |
| (Aplikatzeko dauden gastuak)                              | -5.863,60           | 0,00                |
| Aurrekontuz kanpoko gastuak                               | 216.280,68          | 268.092,81          |
| <b>ORDAINTZEKO DAUDEN ORDAINSARIAK</b>                    | <b>1.423.055,91</b> | <b>942.528,49</b>   |
| Diruzaintzako funts likidoak                              | 1.046.017,57        | 1.313.158,89        |
| Finantziazio-desbideraketa metatu negatiboak              | 39.156,86           | 0,00                |
| <b>DIRUZAINZAKO GERAKINA, GUZTIRA</b>                     | <b>1.174.146,74</b> | <b>1.462.977,75</b> |
| Finantzaketa atxikia duten gastuen diruzaintzako gerakina | 549.186,39          | 0,00                |
| <b>DIRUZAINZAKO GERAKINA GASTU OROKORRETARAKO</b>         | <b>624.960,35</b>   | <b>1.462.977,75</b> |

## V.4. EGOERAREN BALANTZEA

## AKTIBOA

| Izena  | 2007                 | 2006                 | Aldea               |
|--|----------------------|----------------------|---------------------|
| 1. Ibilgetu materiala  | 16.417.862,91        | 15.632.766,27        | 785.096,64          |
| 2. Ibilgetu ez-materiala                                     | 1.060.546,26         | 846.483,21           | 214.063,05          |
| 3. Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak         | 5.070.605,67         | 4.618.874,15         | 451.731,52          |
| 4. Herri ondasunak   | 1.577,76             | 1.577,76             | 0,00                |
| 5. Finantza-ibilgetua  | 1.467,59             | 1.467,59             | 0,00                |
| <b>A) IBILGETUA</b>  | <b>22.552.060,19</b> | <b>21.101.168,98</b> | <b>1.450.891,21</b> |
| 7. Izakinak  | 0,00                 | 0,00                 | 0,00                |
| 8. Zordunak  | 2.052.549,00         | 1.749.511,28         | 303.037,72          |
| 9. Finantza-kontuak  | 1.271.438,62         | 1.313.161,05         | -41.722,43          |
| 10. Egoera iragankorrak, aldizkatzearen ondoriozko doitzeak. | 0,00                 | 0,00                 | 0,00                |
| 11. Aplikatzeko dagoen emaitza                               | 0,00                 | 0,00                 | 0,00                |
| <b>C ZIRKULATZAILEA</b>                                      | <b>3.323.987,62</b>  | <b>3.062.672,33</b>  | <b>261.315,29</b>   |
| <b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>                                      | <b>25.876.047,81</b> | <b>24.163.841,31</b> | <b>1.712.206,50</b> |

## PASIBOA

| Izena  | 2007                 | 2006                 | Aldea               |
|--|----------------------|----------------------|---------------------|
| 1. Ondarea eta erreserbak  | 13.400.786,99        | 12.100.872,47        | 1.299.914,52        |
| 2. Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)                             | 481.760,98           | 1.264.805,17         | -783.044,19         |
| 3. Kapital-dirulaguntzak   | 6.380.365,85         | 5.922.795,13         | 457.570,72          |
| <b>A FUNTS BEREKIAK</b>  | <b>20.262.913,82</b> | <b>19.288.472,77</b> | <b>974.441</b>      |
| 4. Jasotako prestamenak, maileguak, fidantzak eta gordailuak           | 4.105.565,59         | 3.861.414,97         | 244.150,62          |
| <b>C EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK</b>                                      | <b>4.105.565,59</b>  | <b>3.861.414,97</b>  | <b>244.150,62</b>   |
| 5. Aurrekontu itxietako eta aurrekontuz kanpoko hartzekodunak          | 1.428.919,51         | 942.528,49           | 486.391,02          |
| 6. Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzeak eragindako doitzeak | 78.648,89            | 71.425,08            | 7.223,81            |
| <b>D EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK</b>                                   | <b>1.507.568,40</b>  | <b>1.013.953,57</b>  | <b>493.614,83</b>   |
| <b>PASIBOA, GUZTIRA</b>  | <b>25.876.047,81</b> | <b>24.163.841,31</b> | <b>1.712.206,50</b> |



## V.5. RATIOAK

| Adierazlea  | 2002   | 2003   | 2004   | 2005   | 2006   | 2007   |
|---|--------|--------|--------|--------|--------|--------|
| Diru-sarreraren betetze-maila                     | %87,20 | %86,07 | %90,49 | %87,77 | %85,15 | %88,63 |
| Gastuen betetze-maila                             | %83,60 | %84,03 | %95,31 | %82,75 | %83,32 | %91,08 |
| Kobrانتzen betetzea                               | %87,99 | %86,28 | %85,57 | %87,51 | %88,48 | %86,24 |
| Ordainketen betetzea                              | %89,49 | %91,63 | %83,68 | %89,49 | %93,06 | %87,33 |
| Zorpetze-maila                                    | %4,78  | %4,85  | %5,65  | %5,92  | %6,42  | %7,15  |
| Zorpetze-muga                                     | %9,23  | %10,40 | %6,50  | %10,43 | %18,82 | %9,34  |
| Zorpetze-ahalmena                                 | %4,45  | %5,55  | %0,85  | %4,51  | %12,40 | %2,19  |
| Aurrezpen garbia                                  | %4,45  | %5,55  | %0,85  | %4,51  | %12,40 | %2,19  |
| Langilariaren indizea                             | %53,36 | %49,48 | %41,32 | %49,45 | %49,10 | %46,26 |
| Inbertsioaren indizea                             | %10,44 | %16,97 | %30,74 | %17,13 | %17,51 | %16,79 |
| Dirulaguntzekiko menpekotasuna                    | %34,28 | %37,51 | %49,89 | %53,19 | %52,27 | %50,87 |
| Diru-sarrerak biztanleko                          | 605    | 717    | 840    | 817    | 809    | 822    |
| Gastuak biztanleko                                | 580    | 700    | 885    | 740    | 791    | 845    |
| Diru-sarrera aruntak biztanleko                   | 543    | 615    | 618    | 643    | 745    | 719    |
| Gastu arruntak biztanleko                         | 503    | 560    | 587    | 587    | 618    | 668    |
| Tributu bidezko diru-sarrerak biztanle bakoitzeko | 239    | 290    | 282    | 288    | 378    | 334    |
| Finantza-zama biztanleko                          | 26     | 30     | 35     | 38     | 48     | 51     |
| Zorra biztanleko                                  | 261    | 291    | 339    | 412    | 375    | 401    |

## VI. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, Comptos Ganbera honen aburuz udalak jarraitu behar dituen gomendio nagusiak, bere antolamendu, prozedura, kontabilitate eta barne-kontrolako sistemak hobetzeko.

### VI.I. ALDERDI OROKORRAK, AURREKONTUEN EGOERA-ORRIAK ETA ALDAKETAK ETA EXEKUZIOA

- *Datei eta aurrekontuaren eta kontu orokorren onespena argitaratzeari buruz lege indarduntan ezarritako betebeharrak betetzea.*

- *Aurrekontu-aldaketako espediente guztietan erantsi behar da kontu-hartzaitzaren nahitaezko txostena.*

- *Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar dira indarreko araudiaren arabera izapide hori aginduzkoa duten aurrekontu-aldaketak.*

- *Gastuak eta diru-sarrerak kode egokietan kontabilizatzea, jatorri ekonomikoaren arabera.*

- *Dirubilketa zaileko eskubideen kalkulua egitean, aurrekontuz kanpoko zordunak aintzat hartu behar dira, haien mugaegunari jaramon egin.*

- *Baimendutako kredituen izaera mugatzaile eta loteslea bete dadin ziurtatzea.*

- *Oroitidazkia egin behar da finantzen egoera-orriak osatzen dituzten egoera-orrietako beste bat izatearen ikuspegitik, eta informazio garrantzitsu guztia bertan jaso behar da.*

- *Oinarrizko kudeaketa-prozedurak errespetatzea, eta aurrekontuen exekuzio-faseetarako arduradunak identifikatu eta esleitzea.*

- *Aurrekontuko gastuaren faseak erregistratzea aurrekontuen eta gastu publikoaren arloko irailaren 21eko 270/1998 Dekretuan ezarritakoaren arabera.*

### VI.2. LANGILEAK

Langile-gastuak 4 milioi eurokoak dira, eta horiek 2007ko aurrekontuko betebeharrak aitortuen guz-

tizkoaren ehuneko 46 egiten dute. 107 langilekoa da plantilla.

2007ko ekitaldian, kapitulu horretako gastuak hiru artikulu ekonomikotan jaso dira, 271/1998 Foru Dekretuan ezarritakoa bete gabe.

Eginiko lanean oinarriturik, honako gomendio hauek egiten ditugu:

- *Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar da udaleko plantilla organikoaren onespena.*

- *Sailkapen ekonomikoaren xehetasunak ematea, aurrekontu-egituraren arlorako ezarritakoaren arabera.*

- *Ekitaldi bukaerako saldoen gaineko berrazterketak sistematikoki aplikatzea eta aldiro adospenak egitea honakoen artean: kontabilitatea, batetik, eta nominen nahiz atxikipen-aitorpenen laburpenak, bestetik.*

- *Nominen aplikazio informatikoa egokitzea, laburpen egokiak lortzeko, kontabilitate orokorreko programara automatikoki iraul daitezkeenak, eta horrela bikoizketak, gerora eskuz eginiko kontabilitazioa eta egin daitezkeen akatsak saihesteko.*

Halaber, zerbitzu anitzetako langileen hiru plaza betetzeko kontratazio-espedientea aztertu dugu.

Kontratazio horien azterketatik ondorioztatzen da araudi indarduna behar bezala bete dela.

Bestalde, ez da inon jasota geratu gizarte zerbitzuetako langileen espedientean hautapen prozedurarik egin denik.

*Hona gure gomendioak:*

- *Langileak kontratatzeko, behar diren hautapen-prozedurak erabiltzea, araei jarraituz.*

### VI.3. GASTUAK ONDASUN ARRUNTETAN ETA ZERBITZUETAN

2007ko ekitaldian, kontzeptu horietan aitorturiko betebeharrak 2.201.101 eurokoak izan dira; hau da, aurrekontuan aitorturiko gastu guztien ehuneko 25,5.

Hona hemen xehakapena:

| Kontzeptua                                | Aitorturiko betebeharrak<br>(2007) |
|---|------------------------------------|
| Errentamendua                             | 32.945                             |
| Konponketak, mantentze-lanak eta zaintza  | 301.856                            |
| Materiala, homidurak eta bestelakoak      | 1.842.701                          |
| Zerbitzua dela-eta emaniko kalte-ordainak | 2.182                              |
| Argitalpen gastuak                        | 21.415                             |
| <b>Guztira</b>                            | <b>2.201.101</b>                   |

Fakturen lagin bat egiaztatu da, eta hartatik ondorioztatzen da zuzen kontabilizatuta daudela.

#### VI.4. INBERTSIOAK

Inbertsioak, ekitaldian zehar, 1.450.891 eurokoak izan dira. Udalaren guztizko gastuen ehuneko 16,8 egiten dute, eta haien behin betiko aurrekontuaren ehuneko 67,8 bete da.

2007ko ekitaldian zehar, ez dira aurreikusitako obrak exekutatu.

Kontusail aipagarriena ostatu emateko establezimenduaren obrarekin lotutakoa da. 700.000 euroko aurrekontua izan zuen. Ondoren aztertuta dator.

Espediente hauek aztertu dira:

| Kontratua   |                        |                                | Adjudikazioa |
|---|------------------------|--------------------------------|--------------|
| Atarrabiako Antzinako Rived etxeko solairuan eta ondoko lursailean kultur etxea eta liburutegia egiteko obraren proiektua idaztea eta zuzendaritza fakultatiboa | Laguntzarako kontratua | Irekia, eskaintza onenarentzat | 140.000,40   |
| Ostatu emateko establezimendua (1. kategoriako aterpetxea) Atarrabian   | Obra                   | Irekia, eskaintza onenarentzat | 596.812,56   |

Aztertutako laginetik ondorioztatzen da hobetu beharreko honako puntu hauek daudela:

- *Aginduzkoak diren txosten juridikoak eta kontu-hartzailekoak eranstea eta adjudikazioak arau indardunen arabera argitaratzea.*

- *Baldintza orrietan kontratazio-prozeduraren baldintzak adieraztea, adjudikazioa egitea erabaki den moduaren arabera.*

- *Kontratazio mahaiaren aktak egitea eta espedienteari gehitzea.*

- *Esleipena jakinarazi izanaren berri espedienteetan jaso behar da.*

- *Adjudikazio-hartzaileari eskatzea behin betiko bermea gordailuan eman dezan.*

- *Kontratistaren eskaria jasotzen bada obren exekuzioari ekiteko epea luzatzeko eskatuz, berriaz ebaztea eskaria arrazoizkoa den edo ez den. Baiezkoan, beste epe batzuk ezartzea, eta epe horiek betetzen ez badira baldintza-orrietan berandutzeagatik ezarritako zehapenak ezartzea.*

#### VI.5. DIRU-SARRERAK

Udalaren diru-sarreraren kapitulu garrantzitsuenak transferentzia arruntenak eta zuzeneko zergak dira, likidatutako eskubide guztien ehuneko 45 eta 28 egiten baitute, hurrenez hurren.

Hona diru-sarrerak, xehakatuta:

|   | Aitorturiko eskubideak |
|---|------------------------|
| Zuzeneko zergak   | 2.347.357              |
| Zeharkako zergak  | 165.163                |
| Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk       | 902.856                |
| Transferentzia arruntak                                     | 3.819.374              |
| Ondare diru-sarrerak eta herri ondasunen aprobetxamendukoak | 114.877                |
| Kapital-transferentziak                                     | 457.571                |
| Pasibo finantzarioak  | 600.000                |
| <b>Guztira</b>  | <b>8.407.198</b>       |

Zeharkako zergengatiko diru-sarrerak EIOZari dagozkio. Zerga horren likidazioa eraikuntzaren jarduerarekin lotuta dago. 2007an, 165.163 euro izan dira, eta 2006ko ekitaldikoak baino txikiagoak izan dira, orduan 247.521 euro izan baitziren.

Egindako azterketatik, ondokoak gomendatu behar ditugu:

- *Tasa eta prezio publikoek jasaten dituzten kostuei buruzko azterlanak aldizka gaurkotzea.*

- *Aldiro kontabilizatzea diru-sarrera guztiak, kontabilitatea kudeaketarako tresna egokia izan dadin.*

- *Diru-sarreraren –dirulaguntzak, funtsean– kudeaketatik eratorritako datuak egiaztatzeke modua ematen duten prozedurak taxutzea eta sistematikoki aplikatzea, eta datu horiek beren kontabilitate-erregistroekin nahiz dirubilketakoekin berdinkatu eta kontrajartzea.*

- *Ahal den arinen likidatzea hiri-lurren balioa handitzeari buruzko zergak eta establezimenduak irekitzeko lizentziak.*

#### VI.6. INBENTARIOA, IBILGETUA

- *Ibilgetua osatzen duten kontabilitate-saldoak aztertu eta garbitzea, udalaren ondasunak ongi isla ditzaten.*

#### VI.7. HIRIGINTZA

2006ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostenean azaldu genuen bezala, 2007ko maiatzaren 21ean udal plan orokorraren sarrera erregistratu zen udalean, baina oraindik ere onetsi gabe dago. Horrenbestez, indarrean jarraitzen duen planeamendua 1996koa da.

Udalak ez dauka Lurzoruaren Udal Ondarearen berariazko inbentariarik, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legeak ezarri bezala.

Hori horrela, hauxe gomendatzen dugu:

- *Abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legean ezarritakoari egokitu beharra dago; horretarako, eta kasua bada, hirigintza-plan berria onetsi behar da, eta aintzat hartu behar dira Lurzoruaren Udal Ondarea eratzeari eta horren jarraipena egiteari buruzko jarraibideak.*

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapide guztiak bete ondoren.

Iruñean, 2009ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

## Corellako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 22an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Corellako Udalari buruz egingako fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2009ko ekainaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### Corellako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

#### AURKIBIDEA

Txosten exekutiboa edo laburpena (13. or.).

- I. Sarrera (14. or.).
- II. Helburua (14. or.).
- III. Norainokoa (15. or.).
- IV. Iritzia (15. or.).
  - IV.1. Kontu orokorra (15. or.).
  - IV.2. Legezketasuna (15. or.).
  - IV.3. 2007ko abenduaren 31ko egoera ekonomiko eta finantzario bateratua. (15. or.).
- V. 2007ko kontu orokorraren laburpena (17. or.).
  - V.1. 2007ko ekitaldiko aurrekontu bateratua-  
ren likidazioaren egoera-orria (17. or.).
  - V.2. 2007 ekitaldiko aurrekontu bateratuaren  
emaitza (18. or.).
  - V.3. Diruzaintzako gerakinaren egoera-orria  
2007o abenduaren 31n (18. or.).
  - V.4. 2007ko abenduaren 31ko egoeraren  
balantze bateratua. (19. or.).
- VI. Iruzkina, ondorioak eta gomendioak (20. or.).
  - VI.1. Langileria (20. or.).
  - VI.2. Administrazio-kontratazioa. (20. or.).
  - VI.3. Kudeaketari buruzko bestelako gomen-  
dioak (21. or.).
  - VI.4. Hirigintza (21. or.).

Eranskina: Corellako Udalaren 2007ko abenduaren 31ko finantzen egoera-orri bateratuen oroitidazkia.

(Oharra: aipaturiko eranskinak foru parlamentarien eskura daude Legebiltzarreko Zerbitzu Orokoretako bulegoetan eta ondoko web helbidean hain zuzen:

[www.cfnavarra.es/camara.comptos](http://www.cfnavarra.es/camara.comptos)

#### TXOSTEN EXEKUTIBOA EDO LABURPENEA

2008ko Jarduera Programari jarraituz, Comptos Ganberak Corellako Udalaren eta haren erakunde autonomoaren –San José Zaharrentzako Egoitza– 2007ko ekitaldiko kontu orokorra fiskalizatzeari ekin dio. Corellako Udalak 81,1 km<sup>2</sup> eta 7.713 biztanle dauzka.

Hona 2007ko datu adierazgarrienak:

- Udalak eta bere erakunde autonomoak, guztira, 149 langile dituzte.

- Gastuek, guztira, 10 milioi euro egiten dute; horietatik % 58 gastu arruntei dagokie.

- Ekitaldiko aitorturiko diru-sarrerek 9,45 milioi egiten dute; horietako % 58 dirulaguntzak dira, eta % 41 tributuen bidezkoak.

- Bai aurrekontuetako gastuek, bai diru-sarrek exekuzio maila txikia dute, ehuneko 55 eta 51, hurrenez hurren. Hori funtsean zor zaio 2007rako aurreikusita zeuden obra garrantzitsu batzuen hasiera geroratu izanari, eta, horrenbestez kasuko finantziarioari jaso ez izanari.

- Ekitaldiko aurrekontuaren emaitza doituari, 905.200 euroko defizita dago.

- Diruzaintzako guztizko gerakina positiboa da –142.600 euro–; gastu orokorretarako gerakina, berriz, negatiboa da –774.300 euro–.

- 2007ko abenduaren 31n, zor finantzarioa 1,88 milioi eurokoa zen.

- Udalak San José Zaharrentzako Egoitzarako 216.707 euroko ekarpena egin du, defizita estaltzeko.

Comptos Ganberaren iritziz, eta eginiko lana oinarri, udalaren 2007rako kontu orokorrak egoki islatzen du aurrekontuaren exekuzioa eta udalaren ondare-egoera; salbuespen bakarra da ez dela eguneratu ondasunen inbentarioa. Era berean, udalaren eta bere erakunde autonomoen jardura ekonomiko eta finantzarioa legezketasun-printzipioari jarraituz gauzatu da.

**I. SARRERA**

Corellako Udalak 7.713 biztanle ditu, 2007ko urtarrilaren 1eko udal erroldaren arabera, eta haren erakunde autonomoarekin batera, hauexek ditu zifra adierazgarrienak 2007ko abenduaren 31n:

| Erakundea                      | Aitorturiko betebeharrak<br>(eurotan) | Aitorturiko eskubideak<br>(eurotan) | Langileak  |
|--------------------------------|---------------------------------------|-------------------------------------|------------|
| Aitorturiko eskubideak         | 9.335.795                             | 8.748.862                           | 73         |
| San José zaharrentzako egoitza | 928.259                               | 928.335                             | 27         |
| Bateratzearen doitzeak         | (222.999)                             | (222.999)                           | -          |
| <b>Guztira</b>                 | <b>10.041.055</b>                     | <b>9.454.198</b>                    | <b>100</b> |

Udalak ondoko mankomunitateetan hartzen du parte:

a) Erriberako Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitatea. Horren bidez ematen dira hiri hondakin solidoen kudeaketa- eta tratamendu-zerbitzuak.

b) Moncayoko Uren Mankomunitatea. Haren bidez, ur hornidurako zerbitzuak ematen ditu.

Halaber, Eder Turismo Partzuergoan hartzen du parte.

Corellako Udalarri aplikatzekoa den araubide juridikoa batez ere honako hauek osatzen dute:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko 11/2004 Foru Legea.
- Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeko 7/1985 Legea.
- Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutua.
- Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea.
- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.
- Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea.
- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 Foru dekretuak dira, zeinak Nafarroako Toki Administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.

• Udalaren exekuzio oinarriak eta gainerako barne araudia.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bosgarren atalean, txostenaren helburuak aipatzen dira; hirugarrenean, egindako lanaren norainokoa; laugarrenean, kontu orokorrari, legezketasunari eta egoera finantzarioari buruzko iritzia ematen dugu. Bosgarren atalean sartu ditugu berraztertu ditugun finatzen egoera-orri nagusiak eta, seigarren eta azkenekoan, berriz, erakusten ditugu erakundearen barne-antolaketa eta –kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorio eta gomendioak.

Halaber, eranskin batean sartu da udalak 2007ko kontuekin eginiko oroitidazkia.

Lan hau egitean emandako laguntza eskertzen diegu udaleko eta haren erakunde autonomoko langileei.

**II. HELBURUA**

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Corellako Udalaren eta haren erakunde autonomoaren 2007ko ekitaldiko kontu orokorraren fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren helburua da honako hauei buruzko gure iritzia adieraztea:

a) Fiskalizatutako entitatearen 2007ko kontu orokorrak fidelki islatzen ote duen alderdirik behin-etan entitatearen finantza-egoera eta aurrekontuaren likidazioa eta lorturiko emaitzak, eta guztiok onartuak diren kontabilitate printzipio eta arauari jarraituz prestatu ote den eta horiek uniformetasunez aplikatu diren.

b) Entitateak 2007an aurrera eramandako jarduerari aplikatzekoa zaion legeriaren betetze-maila.

c) Entitatearen finantza-egoera 2007ko abenduaren 31n.

Udalaren kudeaketa hobetzeko gure ustez beharrezkoak diren iruzkin eta gomendioak jasozten dira txostenean.

### III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak Corellako Udalaren (aurreantzean udala deituko diogu) kontu orokorraren fiskalizazioa egin du. Kontu horretan sartuta daude udalaren beraren kontua eta haren erakunde autonomoa den San José Zaharrentzako Egoitzaren kontua.

Hona hemen udalak aurkezturiko finantzen egoera-orri nagusiak:

- Aurrekontuaren betetze-maila, ekitaldiko aurrekontu-emaizta eta udalaren eta haren erakunde autonomoaren diruzaintza-gerakin bateratuak.

- Udalaren eta bere erakunde autonomoaren egoera-balantzea.

Kontabilitateari buruzko oroitidazkiak ez du inongo informaziorik jasotzen kontratazioari, gora-beherei, hirigintzari eta geroko gertakariei buruz.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauiei jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta ingurubarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hauta-proba edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz. Prozedura horien artean erabili da laginen teknika, edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa.

Zehazki, udalari eta bere erakunde autonomoari dagokienez, berrikusi dira bai beren aurrekontuen eta finantzen egoera-orrien edukia eta koherentzia, bai aplikaturiko oinarritzko prozedurak; eta ebaluatu dira antolaketa, kontabilitate eta barne kontroleko oinarritzko alderdiak.

### IV. IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Corellako Udalaren eta haren erakunde autonomoaren 2007ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Kontu hori prestatzeko ardura, baita bere edukiena

ere, udalarena da, eta laburbilduta jasota dago txosten honen V. atalean.

Gure lanaren emaitza gisa, honako iritziak dauzkagu:

#### IV.1. KONTU OROKORRA

- Udalaren ondasunen inbentarioa 1991koa da, eta gaurkotzeko dago.

Arestian aipaturikoa alde batera utzita, udalaren eta haren erakunde autonomoaren 2007ko ekitaldiko kontu orokorrak fidelki islatzen du alderdirik behinenetan gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa eta abenduaren 31ko ondare-egoera. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko informazio beharrezkoa eta nahikoa du, aurreko ekitaldian aplikaturikoekin bat datozen eta guztiok onartuak diren kontabilitate printzipio eta arauiei jarraituz.

#### IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke udalaren eta haren erakunde autonomoaren jarduera ekonomiko eta finantzarioa, oro har, legezkotasun printzipioari jarraituz egin dela.

#### IV.3. 2007ko ABENDUAREN 31ko EGOERA EKONOMIKO ETA FINANTZARIO BATERATUA.

Hasierako aurrekontu bateratua 17.348.852 eurokoa da, eta behin betikoa, 18.362.701 eurokoa. Gastuen betetze-maila txikia du, ehuneko 54,68koa, eta diru-sarrerena, ehuneko 51,49koa.

Diru-sarrera bateratuen artean, transferentzia arruntak eta kapital transferentziak ehuneko 107, ehuneko 49 eta ehuneko 51,13 exekutatu dira, hurrenez hurren. Entitatearen baliabideen ehuneko 58 inguru transferentzietatik datoz.

Gastuei dagokienez, inbertsio errealek eta langileen ordainsariek 2007ko ekitaldiko aurrekontuko guztizkoaren ehuneko 71,66 egiten dute. Udalak San José Zaharrentzako Egoitzarako 216.707 euroko ekarpena egin du, defizita estaltzeko.

2007ko aurrekontu bateratuko gastuen eta diru-sarreraren exekuzioaren ehuneko txikia –ehuneko 54,68 eta 51,49 izan baita, hurrenez hurren– funtsean inbertsio errealeen kapituluaren exekuzio maila txikiari zor zaio –ehuneko 33,30–, hain zuen ere 2007rako aurreikusita zeuden obra garrantzitsu batzuen hasiera atzeratu izatearen ondorioz.

Halaber, kapital-transferentzien ondoriozko diru-sarreraren betetze-maila –ehuneko 51,13koa–

eta finantza-pasiboak eskuratu izatearen ondoriozkoak –ehuneko 0–, obra horiek finantzatzeko aurreikusitakoak, aurrekontuan jasotakoa baino txikiagoak izan dira. Bestalde, aurrekontuan jasota zegoen inbertsio errealak besterentzea, 5,6 milioi

eurokoa, sei lur-zatiren salmentari zegokiona. Lur-zati horietako bat 2007ko azaroan adjudikatu zen, baina salmenta ez zen gauzatu.

2007ko ekitaldia ixtean, honako magnitude bateratuak ageri ziren:

| Magnitudea                                | 2007         | 2006       |
|---|--------------|------------|
| Aurrekontu-emaizta doitu                  | (905.198,32) | 65.018,12  |
| Diruzaintza-gerakina, orotara             | 142.612,44   | 562.570,91 |
| Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina | (774.287,79) | 28.398,26  |

Magnitude horien balioek okerrera egin dute 2006ko balioekin alderatuz gero.

2007ko abenduaren 31ko finantza zorra 1.880.965,23 eurokoa zen (udalaren 1.841.594,55 euro eta erakunde autonomoaren 39.370,68 euro).

Biztanle bakoitzeko presio fiskala 497,72 eurokoa zen, eta aurreko ekitaldiarekin alderatuta ehu-

neko 3,55eko igoera izan da.

Laburbilduz, ikuspuntu finantzariotik, udalak eta bere erakunde autonomoak, ekitaldia ixteko garaietan, honako emaitzak erakusten dituzte: aurrekontu-emaizta doitu defizitarioa, gastu orokorretarako diruzaintzako gerakin negatiboa, ehuneko 3,74ko zorpetze-maila, ehuneko 9,27ko zorpetze-muga eta ehuneko 8,50eko aurrezki garbi positiboa.



**V. 2007ko KONTU OROKORRAREN LABURPENA****V.1. 2007ko EKITALDIKO AURREKONTU BATERATUAREN LIKIDAZIOAREN EGOERA-ORRIA****Gastu-aurrekontuaren betetzea**

| Azalpena                            | Hasierako aurreikuspena | Aldaketak           | Behin betiko aurreik. | Aitorturiko betebeharrak | Likidaturako ordainketak | Egiteko dauden ordainketak | Betetzea %    | Aitorturiko guztizkoaren gaineko % |
|-------------------------------------|-------------------------|---------------------|-----------------------|--------------------------|--------------------------|----------------------------|---------------|------------------------------------|
| 1. Langile-gastuak                  | 3.272.006,00            | 65.000,00           | 3.337.006,00          | 3.192.716,44             | 3.150.839,25             | 41.877,19                  | %95,68        | %31,80                             |
| 2. Erosketen eta zerbitzuen gastuak | 2.255.285,00            | 198.800,00          | 2.454.085,00          | 2.390.508,40             | 2.133.316,43             | 257.191,97                 | %97,41        | %23,81                             |
| 3. Finantza-gastuak                 | 112.000,00              | -15.600,00          | 96.400,00             | 91.370,50                | 91.370,50                | 0,00                       | %94,78        | %0,91                              |
| 4. Transferentzia arruntak          | 243.000,00              | 4.100,00            | 247.100,00            | 186.059,57               | 176.260,57               | 9.799,00                   | %75,30        | %1,85                              |
| 6. Inbertsio errealak               | 11.269.100,00           | 750.419,06          | 12.019.519,06         | 4.002.627,99             | 2.576.569,81             | 1.426.058,18               | %33,30        | %39,86                             |
| 7. Kapital transf.                  | 62.000,00               | 0,00                | 62.000,00             | 31.520,00                | 13.520,00                | 18.000,00                  | %50,84        | %0,31                              |
| 9. Pasibo finantzarioak             | 135.461,00              | 11.130,02           | 146.591,02            | 146.252,28               | 146.252,28               | 0,00                       | %99,77        | %1,46                              |
|                                     | <b>17.348.852,00</b>    | <b>1.013.849,08</b> | <b>18.362.701,08</b>  | <b>10.041.055,18</b>     | <b>8.288.128,84</b>      | <b>1.752.926,34</b>        | <b>%54,68</b> | <b>%100</b>                        |

**Diru-sarreraren aurrekontuaren betetzea**

| Azalpena                               | Hasierako aurreikuspena | Aldaketak           | Behin betiko aurreikuspena | Aitorturiko eskubideak | Likidaturiko dirubilketa | Kobratzeko dagoena  | Betetzea %    | Aitorturiko guztizkoaren gaineko % |
|--|-------------------------|---------------------|----------------------------|------------------------|--------------------------|---------------------|---------------|------------------------------------|
| 1. Zuzeneko zergak                     | 1.507.000,00            | 0,00                | 1.507.000,00               | 1.680.908,73           | 1.530.141,77             | 150.766,96          | %111,54       | %17,78                             |
| 2. Zeharkako zergak                    | 950.000,00              | 0,00                | 950.000,00                 | 741.989,13             | 626.878,32               | 115.110,81          | %78,10        | %7,85                              |
| 3. Tasak eta beste diru-sarrera batzuk | 1.304.705,00            | 0,00                | 1.304.705,00               | 1.416.003,29           | 1.350.801,52             | 65.201,77           | %108,53       | %14,98                             |
| 4. Transferentzia arruntak             | 2.493.201,00            | 0,00                | 2.493.201,00               | 2.679.946,30           | 2.539.965,57             | 139.980,73          | %107,49       | %28,35                             |
| 5. Ondare-dirusarrerak                 | 40.194,00               | 0,00                | 40.194,00                  | 46.134,25              | 42.815,47                | 3.318,81            | %114,78       | %0,49                              |
| 6. Inbertsio errealen besterentzea     | 5.650.743,00            | 0,00                | 5.650.743,00               | 245,60                 | 245,60                   | 0,00                | %0,00         | %0,00                              |
| 7. Kapital transf.                     | 5.403.009,00            | 11.130,02           | 5.414.139,02               | 2.888.970,70           | 1.592.035,37             | 1.296.935,33        | %53,36        | %30,56                             |
| 8. Aktibo finantzarioak                | 0,00                    | 596.256,49          | 596.256,49                 | 0,00                   | 0,00                     | 0,00                | %0,00         | %0,00                              |
| 9. Pasibo finantzarioak                | 0,00                    | 406.462,57          | 406.462,57                 | 0,00                   | 0,00                     | 0,00                | %0,00         | %0,00                              |
|  | <b>17.348.852,00</b>    | <b>1.013.849,08</b> | <b>18.362.701,08</b>       | <b>9.454.198,00</b>    | <b>7.682.883,62</b>      | <b>1.771.314,38</b> | <b>%51,49</b> | <b>%100</b>                        |

## V.2. 2007 EKITALDIKO AURREKONTU BATERATUAREN EMAITZA

| Azalpena   | Aurreko ekitaldia  | Itxiera-ekitaldia  |
|--|--------------------|--------------------|
| Aitorturiko eskubide garbiak                       | 8.228.799,53       | 9.454.198,00       |
| Aitorturiko betebeharrak garbiak                   | 9.049.025,39       | 10.041.055,18      |
| <b>Aurrekontu-emaizta</b>                          | <b>-820.225,86</b> | <b>-586.857,18</b> |
| <b>Doikuntzak</b>                                  |                    |                    |
| Finantzazioaren desbideraketa positiboa            | 29.661,86          | 800.631,94         |
| Finantzazioaren desbideraketa negatiboa            | 914.895,84         | 425.203,50         |
| Diruzaintzako gerakinarekin finantzaturiko gastuak |                    | 57.087,30          |
| Merkataritzako eragiketen emaitza                  |                    |                    |
| <b>Aurrekontu emaitza doitua</b>                   | <b>65.008,12</b>   | <b>-905.198,32</b> |

## V.3. DIRUZAINZAKO GERAKINAREN EGOERA-ORRIA 2007ko ABENDUAREN 31n

| Azalpena  | Aurreko ekitaldia   | Itxiera-ekitaldia   |
|---|---------------------|---------------------|
| <b>+ Kobratzeko dauden eskubideak</b>                     | <b>816.931,78</b>   | <b>1.864.963,01</b> |
| + Diru-sameren aurrekontua: ekitaldiko aurrekontua        | 566.702,21          | 1.771.181,96        |
| + Diru-sameren aurrekontua: itxitako ekitaldiak           | 825.101,15          | 483.380,79          |
| + Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak                       | 19.466,50           | 51.016,62           |
| + Ordainketen itzulketak                                  | 0,00                | 0,00                |
| - Bilketa zaileko eskubideak                              | 593.802,59          | 440.616,36          |
| - Aplikatzeke dauden diru-sarrerak                        | 535,49              | 0,00                |
| <b>- Ordaintzeko dauden betebeharrak.</b>                 | <b>1.468.764,56</b> | <b>2.101.761,87</b> |
| + Gastuen aurrekontua: ekitaldiko aurrekontua             | 510.910,34          | 1.752.926,34        |
| + Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak                | 109.215,07          | 104.121,31          |
| + Diru-sameren itzulketak                                 | 132,42              | 0,00                |
| - Aplikatzeko dauden gastuak                              | 0,00                | 0,00                |
| + Aurrekontuz kanpoko gastuak                             | 848.506,73          | 244.714,22          |
| <b>+ Diruzaintzako funts likidoak</b>                     | <b>1.214.403,69</b> | <b>371.430,50</b>   |
| <b>+ Finantziario-desbideraketa metatu negatiboak</b>     |                     | <b>7.980,80</b>     |
| <b>= Diruzaintzako gerakina, guztira</b>                  | <b>562.570,91</b>   | <b>142.612,44</b>   |
| Finantzaketa atxikia duten gastuen diruzaintzako gerakina | 534.172,65          | 916.900,23          |
| Diruzaintza-gerakina, baliabide atxikiak direla-eta       |                     |                     |
| Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina                 | 28.398,26           | -774.287,79         |

## V.4. 2007ko ABENDUAREN 31ko EGOERAREN BALANTZE BATERATUA.

| Deskribapena |   | Zenbatekoa<br>itxiera-urtean | Aurreko urteko<br>zenbatekoa |
|--------------|---|------------------------------|------------------------------|
| <b>A</b>     | <b>Ibilgetua</b>  | <b>22.369.897,72</b>         | <b>18.367.515,33</b>         |
| 1            | Ibilgetu materiala  | 16.083.907,59                | 14.521.600,96                |
| 2            | Ibilgetu ez-materiala   | 358.593,82                   | 296.277,82                   |
| 3            | Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak                     | 5.634.912,68                 | 3.257.152,92                 |
| 4            | Herri ondasunak   | 289.478,57                   | 289.478,57                   |
| 5            | Ibilgetu finantzarioa   | 3.005,06                     | 3.005,06                     |
| <b>B</b>     | <b>Zenbait ekitalditan banatu beharreko gastuak</b>                   | <b>396,67</b>                | <b>396,67</b>                |
| 6            | Deuseztatu beharreko gastuak  | 396,67                       | 396,67                       |
| <b>C</b>     | <b>Ibilkorra</b>  | <b>2.677.009,87</b>          | <b>2.656.220,29</b>          |
| 7            | Izakinak  | 0,00                         | 0,00                         |
| 8            | Zordunak  | 2.305.579,37                 | 1.411.269,86                 |
| 9            | Kontu finantzarioak   | 371.430,50                   | 1.214.403,69                 |
| 10           | Finantzaketaren egoera iragankorrak, aldizkatzeak eragindako doitzeak | 0,00                         | 0,00                         |
| 11           | Aplikatzeko dagoen emaitza (ekitaldiko galera)                        | 0,00                         | 30.546,74                    |
|              |   | <b>0,00</b>                  | <b>0,00</b>                  |
|              | <b>Aktiboa, guztira</b>   | <b>25.047.304,26</b>         | <b>21.024.132,29</b>         |

| Deskribapena |   | Zenbatekoa itxiera-<br>urtean | Aurreko urteko<br>zenbatekoa |
|--------------|---|-------------------------------|------------------------------|
| <b>A</b>     | <b>Norberaren fondoak</b>   | <b>21.064.577,16</b>          | <b>17.527.614,73</b>         |
| 1            | Ondarea eta erreserbak  | 10.760.510,51                 | 8.540.404,72                 |
| 2            | Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)                               | 1.659.638,83                  | 2.250.652,53                 |
| 3            | Kapital-dirulaguntzak   | 8.644.427,82                  | 6.736.557,48                 |
| <b>B</b>     | <b>Arrisku eta gastuetarako probisioak</b>                            | <b>0,00</b>                   | <b>0,00</b>                  |
| 4            | Homidurak   | 0,00                          | 0,00                         |
| <b>C</b>     | <b>Epe luzeko hartzekodunak</b>                                       | <b>1.880.965,23</b>           | <b>2.027.217,51</b>          |
| 4            | Jasotako gordailuak, prestamenak, maileguak eta fidantzak             | 1.880.965,23                  | 2.027.217,51                 |
| <b>D</b>     | <b>Epe laburreko hartzekodunak</b>                                    | <b>2.101.761,87</b>           | <b>1.469.300,05</b>          |
| 5            | Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak     | 2.101.761,87                  | 1.468.764,56                 |
| 6            | Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak | 0,00                          | 535,49                       |
|              |   | <b>0,00</b>                   | <b>0,00</b>                  |
|              | <b>Pasiboa, guztira</b>   | <b>25.047.304,26</b>          | <b>21.024.132,29</b>         |

## VI. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

### VI.1. LANGILERIA

Gure azterketaren arabera, honako alderdiak atzeman ditugu:

- Udalaren eta haren erakunde autonomo San José Zaharrentzako Egoitzaren 2007ko plantilla organikoa behin betiko onetsi zen 2007ko martxoaren 28ko enplegu eskaintzarekin batera.

- Udalak ez du bere langileen edo erakunde autonomoko langileen organigramarik.

- Udaleko zenbait langilek, bereziki udal-tzaingokoek, 2007an aparte ordu ugari egin dituzte.

Beraz, gure gomendioa da:

| Espedientea   | Esleipen-prozedura  | Adjudikazioaren zenbatekoa |
|---|---|----------------------------|
| Kultur etxeko atezaintza, garbiketa eta mantentzea  | Negoziatua, publiziterik gabe, izaera sozialeko entitateentzat erreserbatua | 27.207                     |
| Alhama kiroldegiko gimnasioko proiektua egitea  | Negoziatua, publizitateduna   | 42.636                     |
| Kultur etxearen proiektua idazteko proiektuaren lehiaketa, aurretiko aukeraketarekin  | Prozedura irekia  | 167.430                    |
| Kirol begiraleak  | Publiziterik gabeko prozedura negoziatua                                    | 84.376                     |
| Miguel Indurain udal kiroldegiko atezaintza, mantentzea eta garbiketa eta udal kiroldegiko eta igerilekuetako taberna zerbitzua, 2007rako | Prozedura irekia  | 42.241                     |
| Miguel Indurain udal kiroldegiko atezaintza, mantentzea eta garbiketa eta udal kiroldegiko eta igerilekuetako taberna zerbitzua, 2008rako | Prozedura irekia  | 37.500                     |

Guk eginiko berrikuspenaren arabera, esan daiteke indarreko araudia aski ongi errespetatu dela, nahiz eta adjudikazioak ez diren Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitara eman.

Hona gure gomendioak:

- *Udalan eta erakunde autonomoan aplikatutako erosketa-prozedura idatziz garatzea, eta aholkularitza juridikoak nahiz udaleko kontu-hartzailetzak araudiari jarraituz bete beharreko eginkizuna berariaz zehaztea.*

- *Araudiak ezarritako datetan onetsi eta argitaratu behar da plantilla organikoa.*

- *Udaleko eta haren erakunde autonomoko langileen organigrama bat egitea eta hura gaurkoturik edukitzea eta lanpostu bakoitzari dagozkion lanak esleitzea.*

### VI.2. ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA.

Atal honetan xehakaturik agertuko ditugu, alde batetik, hornidurak erosi eta zerbitzuak emateari buruzko alderdiak eta, bestalde, inbertsioak.

#### VI.2.1. Hornidurak erostea eta zerbitzuak ematea

2007ko ekitaldian, hornidurak erostearekin eta zerbitzu-ematearekin zerkusia duten zenbait kontratazio-espeditente hasi dira. Kontratazio espeditente hauek aztertu ditugu:

- *Zerbitzuak adjudikatzeko behar diren hautapen prozesuak egitea, bereziki Udalak jaietarako orkestrak kontratatzen dituzenean eta erakunde autonomoak elikagai kontuak kudeatzen dituzenean. Nolanahi ere, gehieneko iraupena Kontratuen Foru Legean ezarritakoa izanen da.*

- *Indarrean diren kontratuen erregistro gaurkotua izatea.*

## VI.2.2. Inbertsioak

Honakoak diren berrikusi ditugun 2007ko adjudikazio espedienteak:

| Espedientea                        | Esleipen-prozedura                         | Adjudikazioaren zenbatekoa |
|------------------------------------|--|----------------------------|
| Alhama BHIko kiroldegia            | Prozedura irekia                           | 1.779.603                  |
| 2005/2008 Lau Urteko Planeko obrak | Prozedura irekia                           | 2.648.200                  |
| Udako igerilekuak berritzea        | Prozedura negoziatua presako arraziengatik | 183.821                    |

Oro har, aztertutako espedienteetan adjudikazio-orako indarra duten arauak errespetatu dira, honako salbuespenekin:

– Alhama BHIko kiroldegirako kontratua 2007ko azaroaren 27an sinatu zen, eta obrak 2007ko abenduan hasi ziren.

– Ez dago jasota kiroldegiko obren eta lau urteko planeko obren adjudikazioari buruzko publikitate Kontratazioaren Atarian egin zenik.

– Igerilekua erreformatzeko kontratua epez kanpo formalizatu zen. Halaber, exekuzioak ezarritako epea gainditu zuen, baina luzapen horretarako baimena ez dago jasota; hala eta guztiz ere, luzapen hori tazituki onartu zen lanak hartzeko aktaren bitartez.

Hona gure gomendioak:

- *Kontratuen adjudikazioari buruzko publikitatea.*

2007an, zezen plaza erosteagatiko gastu bat ere erregistratu da, 213.112 eurokoa; erosketaren horrekin, jada, udalak akzioen ehuneko 82.03 erositu dauzka. Antzinako jabeekin sinaturiko akordioak aurreikusten zuen akzio guztiak 4 urteko epean erostea, guztira 673.690 euro ordainduta.

## VI.3. KUDEAKETARI BURUZKO BESTELAKO GOMENDIOAK

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, Comptos Ganbera honen aburuz udalak jarraitu behar dituen gomendio nagusiak, bere antolamendu, prozedura, kontabilitate eta barne-kontrolako sistemak hobetzeko.

### VI.3.1. Alderdi orokorrak

- *Oinarrizko kudeaketa-prozedurak idatziz jarritzea, eta exekuzio-faseetarako arduradunak identifikatu eta esleitzea.*

- *Aurrekontua onetsi behar da lege indarduntan ezarritako epean, halako moldeetan kudeake-*

*ta-tresna gisa erabili ahalko baita, hala udalarena nola bere erakunde autonomoena.*

- *Aurrekontu-aldaketei buruzko espedienteak gastua exekutatu aurretik betetzea.*

- *Oroitidazkiaren edukia osatzea, kontu orokorra egoki interpretatu eta ulertzeko behar adina informazio emateko.*

- *Gastu guztiek, izan behar dute, egin aurretik, kasuan kasuko baimena, eta baimena emateko beharrezkoa izanena da behar adina aurrekontu-kreditu egotea.*

### VI.3.2. Inbentarioa-ibilgetua

- *Udal ondasunak –jabari publikoak, ondarekoak eta herri ondasunak– eskritoretan jaso eta erregistratzeko prozesua osatzea.*

- *1991ko udal inbentarioa gaurkotu eta onestea, eta altak eta bajak kontrolatzeko eta jarraitze-sistema bat ezartzea, hura etengabe gaurkotasun eta kontabilitateko ibilgetuarekin lotuta egotea erraztuko duena.*

### VI.3.3. Transferentzia arruntak

- *Tokiko elkarteei emaniko dirulaguntzak sistematikoki berrikustea, haiek zuzen ematen direla bermatzeko eta justifikatu ahal izateko.*

## VI.4. HIRIGINTZA

Corellako Udal Plana 1999ko urriaren 29ko NAO-n argitaratu zen.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeari jarraituz, hiru urteko epea, 2006ko martxora bitartekora, ezarri zen arauak planeamenduaren eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen baldintzen arabera egokitzeko. Udala, gaur egun, bere planeamendu-araua Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen arabera berrikusten ari da.

Corellako Udalaren hirigintza udalak berak kudeatzen du.

2007an zehar hirigintza arloko lau hitzarmen sinatu dira –hiru udalari zegozkion hirigintzako aprobetxamenduak dirutan gauzatzeko eta beste bat kudeaketari buruzkoa–, eta aprobetxamenduen-gatik 981.100,36 euroko diru-sarrerak aitortu dira.

Bestalde, 2008ko ekitaldian zehar, 196 etxebizitza egiteko baimenak eman dira; horietatik, ehuneko 58 babes publikoko sistemaren bat zuten etxebizitzak ziren.

2007. ekitaldian honako espediente hauek ireki dira:

| Espediente mota                                | Zenbat espediente |
|--|-------------------|
| Obrak gerarazteari buruzkoak                   | 20                |
| Obrak legezkoak ote ziren zehazteari buruzkoak | 25                |

Aipatu obrak obretarako lizentziarik eduki gabe egin dira, edo ez zaizkio emandako obra lizentziari egokitzen, eta espedienteak 2007ko abenduaren 31n ebaztekoak ziren.

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapide guztiak bete ondoren.

Iruñean, 2009ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

## Lizarrako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 26an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Lizarrako Udalari buruz egingako fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2009ko ekainaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### Lizarrako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

#### AURKIBIDEA

Txosten exekutiboa edo laburpena (23. or.).

- I. Sarrera (24. or.).
- II. Helburua (24. or.).
- III. Norainokoa (25. or.).
- IV. Iritzia (25. or.).
  - IV.1. 2007ko ekitaldiko kontu orokorra (25. or.).
  - IV.2. Legezkotasuna (25. or.).
  - IV.3. Aurrekontuaren betetzea eta finantza-egoera bateratua, 2007ko abenduaren 31n (25. or.).
  - IV.4. 2006ko fiskalizazioan eginiko gomendioen betetzea (26. or.).
- V. Ondorioak eta gomendioak (26. or.).
  - V.1. Aurrekontu orokorra, aurrekontu-aldaketak eta kontu orokorra (26. or.).
  - V.2. Udaleko langile-gastuak (26. or.).
  - V.3. Gastuak, Udalaren ondasun arruntetan eta zerbitzuetan (26. or.).
  - V.4. Udalaren inbertsioak (27. or.).
  - V.5. Udalaren aurrekontuko diru-sarrerak (28. or.).
  - V.6. Ibilgetua-inbentarioa (28. or.).
  - V.7. Udalaren kontu finantzarioak (28. or.).
  - V.8. Udalaren aurrekontuz kanpoko kontusailak (29. or.).
  - V.9. Hirigintza (29. or.).
  - V.10. "Julián Romano" Musika Patronatua izeneko erakunde autonomoa (29. or.).

Eranskina: 2007ko ekitaldiko kontuen oroitidazkia.

(Oharra: aipaturiko eranskinak foru parlamentarien eskura daude Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorteko bulegoetan eta ondoko web helbidean hain zuzen:  
[www.cfnavarra.es/camara.comptos](http://www.cfnavarra.es/camara.comptos))

#### TXOSTEN EXEKUTIBOA EDO LABURPENEA

Comptos Ganberak, Lizarrako Udalaren eta haren menpeko erakunde autonomoaren ("Julián Romano" Musika Patronatuaren) auditoria egin du, 2007ko ekitaldiari dagokiona.

Ekitaldi horretan, udalaren eta haren erakunde autonomoen diru-sarrerak 20,41 milioi euro egin zuten; gastuek, berriz, 17,17 egin zuten. Bi entitateetan 157 langile zeuden 2007ko abenduaren 31n.

Udalak, 2006an, "Entidad para la gestión del desarrollo municipal y socioeconómico de Estella-Lizarrá S.A." enpresa sortu zuen. Enpresa horrek ez du inolako jarduerarik izan 2007an.

Egingako fiskalizazio lanari buruzko iritzia da 2007ko kontu orokorrak, alderdi behinenetan, fidelki islatzen dituela entitatearen ondarea eta egoera ekonomiko eta finantzarioa, aurrekontuaren likidazioa eta 2007ko abenduaren 31ko eragiketen emaitza. Salbuespena ondasunen inbentarioa da, zeina 1995ekoa izan eta gaurkotu gabe baitago.

Legezkotasunari dagokionez, gure iritzia da udalaren eta haren erakunde autonomoaren jardura finantzarioak 2007an, oro har, legezkotasunaren printzipioa bete zuela.

Egoera finantzarioari dagokionez, udalak eta haren erakunde autonomoak, 2007ko abenduaren 31n, 1,57 milioi euroko aurrezki garbia lortu zuten; aurrekontu-emaitza doitu, berriz, 1,1 milioi eurokoa izan zen.

Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakin bateratua 3,35 milioi eurokoa da; horrenbestez, likidezia dago hurrengo ekitaldian gastuak finantzatzeko.

2007ko abenduaren 31n, zor bizia 7,30 eurokoa da, eta udalari dagokio zenbateko osoa. Zorpetze-maila diru-sarrera arruntan ehuneko 2,73koa zen; zorpetzearen muga, berriz, ehuneko 16,73 zen. Horrenbestez, udalak zorpetzeko ahalmena zeukan.

**I. SARRERA**

Comptos Ganberak, bere jarduketa-programari jarraituz, Udalaren eta haren menpeko erakunde autonomoaren ("Julián Romano" Musika Patronatuaren) auditoria egin du, 2007ko ekitaldiari dago-kiona.

Lizarrako udalerrak 15,39 kilometro koadroko hedadura eta 13.931 biztanle ditu 2007ko urtarrila-ren 1ean. 2007ko abenduaren 31n, udalaren eta bere erakunde autonomoen zifrak honakoak dira:

| Erakundea                         | Aitorturiko betebeharrak | Aitorturiko eskubideak | Euroak                           |
|-----------------------------------|--------------------------|------------------------|----------------------------------|
|                                   |                          |                        | Langileak, 2007ko abenduaren 31n |
| Udala                             | 16.981.249               | 20.222.467             |                                  |
| "Julián Romano" Musika Patronatua | 344.612                  | 344.531                | 157                              |
| - BATERATZEAREN DOITZEAK          | -156.984                 | -156.984               |                                  |
| <b>Guztizkoa, bateratua</b>       | <b>17.168.877</b>        | <b>20.410.014</b>      |                                  |

Udalak, 2007an, "Entidad para la gestión del desarrollo municipal y socioeconómico de Estella-Lizarrá S.A." enpresa sortu zuen. Kapital soziala udalarena zen guztiz, 60.500 eurokoa hain zuzen. Enpresa horrek ez zuen inolako jarduerarik egin 2007an.

Jurramendiko Mankomunitatearen barruan da Udala, eta haren bidez eskaintzen ditu ur horniketa eta zabor-bilketa zerbitzuak. Lizarraldeko Turismo Partzuergoan eta L'Urederra elkartean ere parte hartzen du.

Lizarrako Udalari 2007ko ekitaldian aplikatu zeki-okeen erregimen juridikoa, funtsean, hau izan da:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko 11/2004 Foru Legea.
- Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeko 7/1985 Legea.
- Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzu-ko Langileen Estatutuaren testu bateratua, 251/1993 Foru Dekretuak onetsia.
- Kontratuari buruzko 6/2006 Foru Legea, otsailaren 14ko 1/2007 Foru Legean ezarri-tako berezitasunekin.
- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Oroko-rra.
- Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea.
- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dek-

retuak, zeinak Nafarroako Toki Administrazioari buruzko aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egitu-rari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.

- Lizarrako Udalaren betetze-oinarriak.
- Tributuak arautzen dituzten ordenantzak.

Lan hau egitean emandako laguntza eskertzen diegu Lizarrako Udaleko eta haren menpeko era-kunde autonomoko langileei.

**II. HELBURUA**

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztai-laren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Lizarrako Udalaren eta haren erakunde autonomo-aren 2007ko ekitaldiko kudeaketa ekonomiko eta finantzarioaren auditoria egin dugu.

Lanak helburu du honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

- a) 2007ko Kontu Orokorrek fidelki islatzen ote dituen alderdirik behinenetan Udalaren eta era-kunde autonomoaren ondarea, egoera ekonomiko eta finantzarioa, aurrekontuaren likidazioa eta 2007ko abenduaren 31n lortuta dauden emaitzak, eta guztiok onartuak diren kontabilitate-printzipio eta -arauei jarraituz prestatu ote den, eta horiek uniformetasunez aplikatu diren.
- b) Aplikagarri zaion legedia betetzen ote den Lizarrako Udalak eta haren erakunde autonomoak aurrera eramandako jarduera finantzarioan, 2007ko ekitaldian.



d) Lizarrako Udalaren eta haren erakunde autonomoaren 2007ko abenduaren 31ko finantza-egoera.

d) Egin zuen azken fiskalizazio-txostenean, zeina 2006ko ekitaldiari buruzkoa baita, Comptos Ganbera honek eman zituen gomendioak bete diren.

### III. NORAINOKOA

Fiskalizazioak udalaren eta haren erakunde autonomoaren 2007ko kontu orokorra hartzen du, Osoko Bilkurak 2008ko azaroaren 56an onetsitakoa. Honako egoera-orri hauek biltzen ditu:

a. Toki entitatearen kontua eta haren erakunde autonomoarena: Aurrekontuaren likidazioa, balantzea, galeren eta irabazien kontua eta eranskinak.

b. Udal sozietatearen kontuak.

c. Kontu orokorrari erantsitakoak: oroitidazkia, kontu bateratua, zorraren egoera-orria eta kontu-hartzailtzaren txostena.

Lana Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskubiduan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta araei jarraituz gauzatu da, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautapropa edo prozedura tekniko guztiak bildu dira.

### IV. IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Lizarrako Udalaren eta haren erakunde autonomoaren 2007ko ekitaldiko Kontu Orokorra fiskalizatu dugu. Udalaren ardura da kontuaren prestaketa eta edukia.

Egindako berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzi hau adierazi behar dugu:

#### IV.1. 2007ko EKITALDIKO KONTU OROKORRA

Ondasunen inbentarioa 1995ekoa da, eta ez da eguneratu, eta ez ditu jasotzen ondasun eta eskubide guztiak; horregatik, ezinezkoa izan da udalaren eta erakunde autonomoaren balantzeko ibilgetu osoaren saldoa —58.275.759 eurokoa, 2007ko abenduaren 31n— zentzuzkoa dela egiaztatzea.

Aurreko salbuespenaren ondorioak alde batera utzita, 2007ko ekitaldiko Kontu Orokorrak fidelki jasotzen ditu alderdirik behinenetan entitatearen ondarea eta egoera ekonomiko eta finantzarioa,

haren aurrekontuaren likidazioa eta, 2007ko abenduaren 31ko datarekin, eragiketen emaitza. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko informazio beharrezkoa eta nahikoa du, aurreko ekitaldian aplikaturikoekin bat datozen eta guztiok onartuak diren kontabilitate-printzipio eta —arau publikoei jarraituz.

### IV.2. LEGEZKOTASUNA

Udalaren eta haren erakunde autonomoa den “Julián Romano” Musika Patronatuaren jardura finantzarioa 2007an, oro har, legezkotasun printzipioaren arabera garatu zen.

#### IV.3. AURREKONTUAREN BETETZEA ETA FINANTZA-EGOERA BATERATUA, 2007ko ABENDUAREN 31n

Aitortutako eskubide bateratuak 20,41 milioi eurokoak dira; horietatik, ehuneko 40 jasotako kapital-transferentzietatik dagozkie, ehuneko 29 tributu eta prezio publikoei eta ehuneko 25, azkenik, jasotako transferentzia arruntei.

Diru-sarreraren betetze-maila behin betiko aurreikuspenen ehuneko 57,5ekoa da; diruzaintzako gerakina ez da jasotzen aurreikuspenen artean.

2007an aitorturiko betebeharrak bateratuek 17,17 milioi euro egiten dute, eta haien betetze-maila da behin betiko kredituen ehuneko 43,5ekoa. Funtzionamenduko gastuen betetzea ehuneko 87 eta 96 bitartekoa da; inbertsioetan, berriz, ehuneko 26 baizik ez dira bete.

Aitorturiko betebeharrak, inbertsioak, langile-gastuak eta ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak dira aipagarrienak, ehuneko 44, ehuneko 30 eta ehuneko 20 egiten baitute, hurrenez hurren, gastuen gutzitzkoaren gainean.

2007ko abenduaren 31n, 1,57 milioi euroko aurrezki garbia dago; horrek erran nahi du Udalak eta haren erakunde autonomoak baliabide arruntekin finantzatu dituztela funtzionamendu-gastuak eta zama finantzarioa. Inbertsioak finantzatu dira inbertsioen besterentzetik heldu diren diru-sarrekin eta jasotako kapital-transferentzietatik. Ekitaldiaren amaieran, aurrekontu emaitza doitu bateratua 1,1 milioi eurokoa da.

Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakin bateratua 3,35 milioi eurokoa da; horrenbestez, likidezia dago hurrengo ekitaldian gastuak finantzatzeko.

2007ko abenduaren 31n, zor bizia 7,30 milioi eurokoa da, eta udalari dagokio zenbateko osoa. 2007ko abenduaren 31n, zorpetze-maila diru-

sarrera arrunten ehuneko 2,73 da; horregatik, Udalak zorpetzeko ahalmena du, ehuneko 16,73 baita horretarako daukan muga.

#### IV.4. 2006ko FISKALIZAZIOAN EGINIKO GOMENDIOEN BETETZEA.

2006ko fiskalizazio txostenean Comptos Ganbera honek emaniko hurrengo gomendioen betezea egiaztatu dugu:

*Udalak kreditu-aldaketak izapidetu ditu, eta behar zen kasuetan argitalpena ere egin du, aurrekontuaren likidazioari dagokion ekitaldiko abenduaren 31 baino lehen.*

*Ekitaldi batean aplikatu beharreko zergen tasen eta tarifen behin betiko onespina hura indarrean sartu baino lehen argitaratu da.*

*Udal-obra finantzatzeko jasotako dirulaguntzak aurrekontuan aplikatu dira.*

#### V. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Ondoren, fiskalizatutako arlo bakoitzean lortutako ondorioak eta dagokien gomendioak azalduko ditugu.

##### V.1. AURREKONTU OROKORRA, AURREKONTU-ALDAKETAK ETA KONTU OROKORRA

2007rako aurrekontu orokor bakarrak 2007ko maiatzean hartu zuen indarra, behin betiko ones-

pena argitaratu ondoren. Diru-sarreraren eta gastuen hasierako aurreikuspenek 30,46 milioi euro egiten zuten udalean, eta 380.718 euro musika eskolaren erakunde autonomoan.

2007ko ekitaldian egindako aurrekontu-aldaketak 8,87 milioi eurorenak izan ziren Udalean, eta 17.000 eurorenak erakunde autonomoan.

Kontuen batzorde bereziak ez zuen txostenik egin kontu orokorrari buruz, eta Osoko Bilkurak ez zuen kontu orokorra onetsi legez ezarritako epean.

Hona gure gomendioak:

- *Behin betiko onartzea aurrekontu orokorra, kasuan kasuko ekitaldiaren aurreko urteko abenduaren 31 baino lehen.*

- *Kontu orokorra hurrengo ekitaldiko irailaren 1a baino lehen onetsi behar da.*

##### V.2. UDALEKO LANGILE-GASTUAK

Udalaren langile-gastuak 4.914.601 eurokoak dira. 2007an sortutako gastu guztien ehuneko 29 dira, eta ehuneko bat handitu dira 2006. urtearekin alderatuta.

Udalaren eta musika eskolaren plantilla organikoa 2007ko martxoaren 1ean onetsi zen, eta urte bereko ekainean eman zen argitara. Hona osaera:

|               | Lanpostuak,<br>guztira | Hutsak |
|---------------|------------------------|--------|
| Udala         | 96                     | 26     |
| Musika Eskola | 15                     | 7      |

Gastu horien lagin bat aztertuta, ondorioztatzen da ordainsariak, oro har, betetako lanposturako erabakitakoak direla, egindako atxikipenak zuzenak direla, eta langileria-gastuak behar bezala kontabilizatuta daudela. Halaber, aztertu dugun langileen hautapena deialdi publiko bidez eta oposizio-lehiaketaz egin da.

Hala ere, funtzionario guztiek jasotako osagarri finkoa ez dago zuzen jasota plantilla organikoan; izan ere, hartan ehuneko 3,5eko osagarria jasotzen da lanpostu guztietarako, baina, mailen araberak, ehuneko egokia beste bat da.

*Hona gure gomendioak:*

- *Lanpostu bakoitzari dagozkion osagarriak jasotzea plantilla organikoan.*

##### V.3. GASTUAK, UDALAREN ONDASUN ARRUNTETAN ETA ZERBITZUETAN

Udalak 2007an erositako ondasun arrunten eta zerbitzuen zenbatekoa 3.444.294 eurokoa da, eta ekitaldi horretan sortutako betebeharrak guztien ehuneko 20. Aurreko urtearekin alderatuta, ehuneko hiruko gorakada izan dute.

Fakturen lagin bat berrikusi dugu –330.913 euro egiten dute– bai eta hiriko garbiketa publikoaren kontratazio-espeditentea ere. Hona azken horren ezaugarriak:

| Kontratu mota          | Prozedura/Adjudikatzeko irizpideak                   | Urteko lizitazioaren zenbatekoa | Urteko adjudikazioaren zenbatekoa | Epea   |
|------------------------|--|---------------------------------|-----------------------------------|--------|
| Laguntzarako kontratua | Irekia, Europako mugatik gaindi / eskaintzarik onena | 500.405                         | 500.376                           | 8 urte |

Aztertutako laginetik, ondorio hau ateratzen da:

Berrikusitako gastuak 2007ko ekitaldikoak dira, eta behar diren fakturekin justifikatuta daude. Zuzen kontabilizatu dira.

Hiriko garbiketa publikoaren kontratazio-espedientearen izapidetzea eta haren adjudikazioa, oro har, kontratuei buruzko legediaren arabera egin dira.

#### V.4. UDALAREN INBERTSIOAK

2007. urtean eginiko inbertsioak 7.541.209 eurokoak izan dira. Udalaren gastu guztien ehuneko 44 da. Behin betiko aurrekontuaren ehuneko 26 baizik ez zen exekutatu, nagusiki aurreikusitako hurrengo obren exekuzioa txikia izan delako:

| Inbertsioa                 | Behin betiko aurrekontua | Aitorturiko betebeharrak | Betetakoa (%) | Kreditu gerakina |
|----------------------------|--------------------------|--------------------------|---------------|------------------|
| Kiroldegia                 | 7.907.159                | 123.506                  | %1,56         | 7.783.653        |
| Industrialdea              | 3.800.573                | 545.436                  | %14           | 3.255.137        |
| Parke teknologikoa         | 4.098.889                | 993.217                  | %24           | 3.105.672        |
| Tailer-eskolaren nabea     | 2.450.371                | 2.900                    | %0,12         | 2.447.471        |
| AR3 urbanizazioa           | 1.778.095                | 10.800                   | %0,61         | 1.767.295        |
| Zehaztutako obrak, guztira | 20.035.087               | 1.675.859                | %8            | 18.359.228       |
| Inbertsioak, guztira       | 28.603.144               | 7.541.209                | %26           | 21.061.935       |

2007an adjudikatutako kontratu hauek berrikusi dira:

|   | Prozedura/Adjudikatzeko irizpideak | Lizitazioaren zenbatekoa | Esleipenaren zenbatekoa | Exekuzio epea |
|---|------------------------------------|--------------------------|-------------------------|---------------|
| San Joséplaza eta ondoko kaleak zolaberritzea | Negoziatua, eskaintza onenarentzat | 756.390                  | 754.877                 | 3 hilabete    |
| UE-I S-5 urbanizazioa                         | Irekia, eskaintza onenarentzat     | 4.282.155                | 2.997.936               | 8 hilabete    |
| Argiteria publikoa berritzea                  | Negoziatua, eskaintza onenarentzat | 714.684                  | 714.560                 | 5 hilabete    |
| Poliziarako bi ibilgailu                      | Negoziatua, eskaintza onenarentzat | 69.368                   | 62.390                  |               |

Egiaztatu da, oro har, kontratuei buruzko legedia bete egiten dela kontratazio-espedienteen izapidetzean eta berrikusitako obren eta horniduren adjudikazioan.

Zolaberritzeko eta argiteria publikoa berritzeko lanak adjudikatutako epea gaindituta egin ziren, nahiz eta exekuzio-epea baloratu zen adjudikaziorako irizpide gisa. Jasota ez dagoen arren udalak epearen luzapena berariaz baimendu duenik, obraren zuzendaritzak, 2009an, gertatutako atze-

rapena –zolaberritzeko obrakoa eta argiteriarena- justifikatzeko txosten bat igorri zuen.

Hona gure gomendioak:

- Inbertsioen aurrekontua egitea, haren exekuzio erreala kontuan hartuta.
- Obrak gauzatzeko epeak kontrolatzea, haiek betetzen direla bermatzeko; bestela, erabakitako zigorrak aplikatzea edo haiek ez ezartzeko arrazoiak ematea.

### V.5. UDALAREN AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

Udalaren 2007ko diru-sarrerek 20.222.467 euro egiten dute, ehuneko 18 gehiago aurreko urtean baino, eta hurrengo kontzeptuei dagozkie:

|   | Aitorturiko eskubideak |
|---|------------------------|
| Zuzeneko zergak                                       | 3.586.289              |
| Zeharkako zergak                                      | 920.130                |
| Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk | 1.327.952              |
| Transferentzia arruntak                               | 4.963.002              |
| Ondare-dirusarrerak                                   | 203.767                |
| Inbertsioak besterentzea                              | 1.122.592              |
| Kapital-transferentziak                               | 8.098.735              |

Honakoak dira egindako fiskalizazioan lortu ditugun ondorioak:

Oro har, tributu bidezko diru-sarrerak onetsita-ko tarifen eta tipoen arabera likidatu dira, eta behar bezala kontabilizatu dira.

Lurralde-kontribuzioarengatik, gehiegizko diru-sarrerak kontabilizatu dira, 1.184 euro egiten dute-nak.

Lurzoruaren udal ondarearen lur-zati bat 439.640 eurotan saldu zen. Besterentzea aplikatze-koa den legediaren arabera egin zen. Diru-sarrerak zuzen fakturatu zaizkio erosleari, eta zuzen kontabilizatu eta kobratu dira.

Udal ondasunen inbentario orokorrean ez dago jasota lurzoruaren udal ondarea osatzen duten ondasunen izaera bereiz eta loteslea, eta ez da behar zen erregistroa sortu.

• *Udal ondasunen inbentario orokorrean adierazi eta zehaztea udalaren lurzoru-ondarekoak direnak, bai eta haiek hirigintza-arloko legedian ezarrita dauden helburuei lotuta egotea ere. Hala-ber, lurzoruaren udal ondarearen erregistroa sor-tzea.*

### V.6. IBILGETUA-INBENTARIOA

Udalaren inbentarioa 1995ekoa da, eta gaurko-tu gabe dago. 2003an, zerbitzu publikoei atxikitako ondasunen zerrenda bat egin zen. Ondasunen altak aipatu zerrendan jasotzen dira, eta ez 1995ean egindako inbentarioan.

Ez dago loturarik kontabilitatearen eta inbenta-rioaren artean.

Udal-ondasun guztiak ez daude erregistratuta.

Kontabilitatearen ikuspegitik, tokiko erabilera publikoko ondasunak, behin bukatu ondoren, ez dira aldatzen erabilera orokorrari emandako onda-re-kontura.

Hona gure gomendioak:

• *Udal-ondasun eta -eskubide guztien inbenta-rio balioztatu eta eguneratua egitea eta onestea.*

• *Inbentarioaren eta kontabilitate finantzarioa-ren arteko lotura ezartzea, kontabilitateak inbenta-riatutako ondasunen osaera eta egoera jaso ditzan.*

• *Udal-ondasunak —zerbitzu publikokoak, ondarezkoak eta komunalak— eskrituretan jaso eta erregistratzeko prozesua osatu behar da.*

• *Ibilgetutik kentzea azpiegituran eta erabilera orokorrerako ondasunetan egindako inbertsioak, behin haiek egin ondoren.*

### V.7. UDALAREN KONTU FINANTZARIOAK

Udalaren kontu finantzarioen saldoa, 2007ko abenduaren 31n, 7.750.497 eurokoa da. Interesen-gatiko diru-sarrerek, 2007an, 5.589 euro egiten zuten.

Zero saldoarekin sei kontu korrante zeuden kontabilizatuta, eta deuseztatu egin ziren.

Diruzaintzako egoera-orriak ez du jasotzen saldoen berdinkatze-agiria.

Hona gure gomendioak:

• *Kontabilitateetik kentzea deuseztatutako kontu korronteak.*

• *Diruzaintzako egoera-orriari eranstea saldo-en berdinkatze-akta.*

### V.8. UDALAREN AURREKONTUZ KANPOKO KONTUSAILAK

Aurrekontukoak ez diren hartzekodunen kontuan 23.809 euroko zenbatekoa dago jasota, interes artistikoa duten obren atxikipen gisa; zenbateko horrek zerikusia du 1998. urtean egindako udal-obra baten esleipendunari Udalak inbertsio "artistikoetarako" kobratu zion atxikipenarekin.

*Hona gure gomendioak:*

- 1998an interes artistikoko obretarako atxikipenen kontzeptuan kobratutako funtsen xedea erabakitzea eta ezarritako helbururako aplikatzea.

### V.9. HIRIGINTZA

2007ko urtean eginiko bi hirigintza-kudeaketako hitzarmenetatik bat aztertu dugu, eta horren ondorio gisa esan dezakegu haren izapidetzea indarreko hirigintza-legediaren arabera egin dela.

Udalak ez dauka hirigintza-hitzarmenen erregistrorik.

*Hona gure gomendioak:*

- *Hirigintza-hitzarmenen erregistroa sortzea.*

### V.10. "JULIÁN ROMANO" MUSIKA PATRONATUA IZENEN ERAKUNDE AUTONOMOA

Musika Patronatuaren 2007ko aurrekontua honela bete da:

| DIRU-SARRERAK                       | Behin betiko aurreikuspenak | Aitorturiko eskubideak | Guztizkoaren gaineko eskubideak ehunekotan |
|-------------------------------------|-----------------------------|------------------------|--|
| Tasak eta beste diru-sarrera batzuk | 131.210                     | 135.037                | %39,2                                      |
| Transferentzia arruntak             | 265.797                     | 208.861                | %60,6                                      |
| Ondare-dirusarrerak                 | 720                         | 633                    | %0,2                                       |
| <b>Guztira</b>                      | <b>397.727</b>              | <b>344.531</b>         | <b>%100</b>                                |

| GASTUAK                         | Behin betiko kredituak | Aitorturiko betebeharrak | Guztizkoaren gaineko gastuak ehunekotan |
|---------------------------------|------------------------|--------------------------|---|
| Langile-gastuak                 | 306.246                | 268.847                  | %78                                     |
| Ondasun arruntak eta zerbitzuak | 83.000                 | 70.360                   | %20                                     |

Erakunde autonomoan egindako fiskalizaziotik ondorio hauek azpimarratzen ditugu:

Erakunde autonomoak, ondasun arruntei eta zerbitzuei buruzko kapituluan (bigarreanean), kontabilizatu ditu musika eskolan lan egiten duen udal atezainaren ordainsariak.

Ez dago musika-eskolako ondasunen inbentario eguneraturik edo balioztaturik; ondasun horietako batzuk Udalaren ondasunen zerrendan daude.

*Hona gure gomendioak:*

- *Barne-kontrolerako funtzioak betetzea musika-eskolan, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko*

*Foru Legean erabakitako norainokoaren barruan bete ere, eta betiere hiru esparru hauek kontuan hartuta: ikuskatzaitza, kontrol finantzarioa eta eraginkortasunaren kontrola.*

- *Udalari eginiko transferentzia arrunt gisa kontabilizatzea kontserbatorioan lan egiten duen udal atezainaren gastua.*

- *Musika-eskolako ondasunen inbentario balioztatua eta eguneratua egitea.*

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapide guztiak bete ondoren.

Iruñean, 2009ko ekainaren 22an

Jarduneko lehendakaria: Luis Ordoki Urdazi





